

EUSKAL HERRIKO KALE ERABILERAREN NEURKETA. IKERKETAREN NONDIK NORAKOAK

Olatz Altuna

Neurketaren koordinatzailea

Helbide elektronikoa: olat@soziolinguistika.org

Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketak 17 urteko ibilbide luzea du dagoeneko. 1989an lehenengo aldiz egin zenetik, lau edo bost urteren tartearekin errepikatu da. Esku artean dugun hau V. edizioa da, eta artikulu honetan azalduko ditugu ikerketaren ezaugarri nagusiak eta berrikuntzak.

1. KALE NEURKETAREN EZAUGARRI NAGUSIAK ETA ORAIN ARTEKO IBILBIDEA

2002ko BAT aldizkariaren 43. alean "Erabileraren kale neurketa. Ibilbidea eta metodologia" artikulua argitaratu zen, orduko IV. kale neurketaren nondik norakoen berri emateko (www.soziolinguistika.org web gunean kontsulta daiteke).

Artikulu hartan azaltzen ziren irizpide metodologiko nagusiei bere horretan eutsi zaie honako edizio honetan ere. Hona hemen artikulu haren laburpena:

- "Euskal Herriko Kale Neurketak, Euskal Herri osoan, eremu publikoan $\frac{3}{4}$ kalean $\frac{3}{4}$, euskararen ahozko erabilera neurtzen du."

• “Ikerketa honen berezitasuna inon egotekotan metodologian dago. Izan ere, behaketa bidezko datu-bilketa da; alegia, orain artean erabilerari buruzko datuak inkesta bidez jaso badira ere (eta hala egiten da Euskal Herrian administrazioak burutzen dituen datu-bilketa guztietan, zentsuan zein Inkesta Soziolinguistikoan), ikerketa hone tan zuzeneko behaketa erabiltzen dugu. Beste modu batera esanda, inkesta bidez, norberak bere buruari aitortzen dion erabilera maila jasotzen da; hau da, *erabilera aitortua edo subjektiboa* deitu ohi dena. Kale Neurketan, berriz, inkestetan ez bezala, mintzatzen ari denari ez zaio ezer galdetzen, entzun eta hizkuntza jasotzen da modu objektiboan.”

• “Esku artean dugun ikerketan datu-bilketa metodoa aipagarria bada, aztergai duen eremua ere oso da garrantzitsua, izan ere, Euskal Herri osoa hartzen baitu. Neurketaz gain, *“Euskararen Jarraipena”* Inkesta Soziolinguistikoa da Euskal Herri osoa aztertzen duen ikerketa bakarra. Beraz, bi ikerketok batera aztertuz gero, aukera paregabea dugu erabileraren egoera ongi ezagutzeko.”

• “Hortaz, kalean entzuten diren elkarrizketak neurtzen dira, eta neurtzaileek jasotzen dituzten datuek entzun eta zenbatu diren pertsona horiek leku eta une horretan zein hizkuntza zerabilten adierazten dute, ez besterik. Horrek ez du esan nahi, *‘horiek bakarrik direnik euskaraz egiten dutenak, baizik eta hori dela euskararen erabilpenaren proportzioa; alegia, ez dugu jakingo zenbatek egiten duen, baizik eta batez beste, zenbat egiten den euskaraz une eta leku bakoitzean’*.¹

Kale Neurketan jasotako datuek zera adierazten dute: **neurketa egin den tokian eta unean (egunean eta orduan) zenbat lagun ari den euskaraz (edo erdaraz) hitz egiten.**”

• “Espazio publikoa aztertuko dugu, hau da, kalea. Kalea baita espazio neutralena; hizkuntza-gaitasuna, hizkuntza-joera, eta pentsaera ezberdinetako jendea topatuko dugun espazioa hain zuzen. Beraz, leku irekiak neurtuko ditugu: kalerik jendetsuenak, plazak, parkeak, jolastokiak, karrikak, etab. Toki itxiak: tabernak, bizilekuak, zerbitzu publikoak, lantegiak, ikastetxeak etab. neurketatik kanpo geratuko dira.”

• “Udalerrri bakoitzean ibilbide bat (edo gehiago) zehaztuko da (dira) herri tamainaren arabera. Oro har, 15.000 hiztunetik² beherako udalerrietan ibilbide bakarra neurtuko da, hortik gora 10.000 biztanleko ibilbide bat gehituko da³ (...). Normalean ibilbideak neurketa batetik bestera errepikatu egiten dira.”

• “Neurtzaileak, neurketak irauten duen ordutan, jira eta buelta ibiliko dira ibilbideetan zehar datuak biltzen. Normalean ibilbideak neurketa batetik bestera errepikatu egiten dira, lau urtetan herriko

“Euskal Herriko Kale Neurketak, Euskal Herri osoan, eremu publikoan —kalean—, euskararen ahozko erabilera neurtzen du.”

“Ikerketa honen berezitasuna inon egotekotan metodologian dago. Izan ere, behaketa bidezko datu-bilketa d

“Datuen interpretaziorako bi ohar hartu behar dira kontuan: batetik, kaleko elkarrizketetan euskararen erabilera zenbatekoa den neurtu da (eta ez zenbat euskaldunek hitz egiten dugun euskaraz); bestetik, portzentaia zehatzak baino esanguratsuagoa da urtetan datuek erakusten duten joera.”

kale jendetsuenei dagokienez aldaketarik ez bada behinik behin, izan ere, gune berriak sortu badira $\frac{3}{4}$ espazio urbanizatu berriak eraiki direlako $\frac{3}{4}$ ibilbideak egokitu egingo dira.”

• “Neurtzaileak ibilbidean zehar entzuten dituen elkarrizketak neurtuko ditu.”

• “Datuen interpretaziorako bi ohar hartu behar dira kontuan: batetik, kaleko elkarrizketetan euskararen erabilera zenbatekoa den neurtu da (eta ez zenbat euskaldunek hitz egiten dugun euskaraz); bestetik, portzentaia zehatzak baino esanguratsuagoa da urtetan datuek erakusten duten joera.”

2. V. KALE NEURKETA

Kale Neurketa 1989an egin zen estreinako, eta geroztik lau urtean behin errepikatu da 2001era arte. Laugarren neurketa hartatik esku artean dugun bosgarrenearaino bost urte igaro dira, eta hala jarraitzea erabaki da hemendik aurrera; alegia, bost urtean behin egingo da Euskal Herriko Kale Neurketa. Horrela, zentsu edo errolda urtearekin bat egingo dugu, eta, besteak beste, ezagutza eta erabilera datuen interpretazioak urte berekoak izango dira.

V. Kale Neurketa honetan guztira 185.316 lagun behatu dira⁴, 153.969 gaztelaniaz, 27.172 euskaraz eta 4.175 beste hizkuntzatan.

62 udalerritan egin dira behaketak: Araban 4, Bizkaian 18, Gipuzkoan 16, Nafarroa Garaian 13, Lapurdin 7, Nafarroa Behean 2, eta Zuberoan ere 2.

Lurralde bakoitzean behatutako pertsona kopurua	
Araba	24.239
Gipuzkoa	49.798
Nafarroa garaia	33.636
Bizkaia	70.669
Ipar Euskal Herria	6.974
	185.316

Ipar Euskal Herrian neurtutako pertsona kopurua hiru herrialdeen (Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa) batura da. Emaitzak ere Ipar Euskal Herri mailan aztertu ditugu, herrialde bakoitzean behatutako pertsona kopurua txikia baita.

Ia 400 neurtzaile aritu dira datu bilketa lanean. Guztiek jaso dute betebeharrak horretan trebatzeko prestakuntza-saioa.

Aurreko neurketetan (lehenengoan, 1989an, izan ezik) 160 udalerriri inguru neurtu ziren. Aurten, ordea, neurtutako udalerriri kopurua murriz-

tu egin da, besteak beste, Klusterrak ez duelako nahikoa baliabide lortu aurreko neurketetako dimentsioa lukeen ikerketa aurrera eramateko. Erabaki hori hartzean eragina izan du, orobat, aurreko urteetako esperientziatik ikasitakoak aukera eman digula neurketaren dimentsioa sinplifikatzeko. Beraz, Euskal Herriko datuak eta herrialdeetakoak lortu ahal izateko, orain arteko metodoaren oinarri eutsiz, herrien aukeraketarako **diseinu berri bat egin behar izan da**. Udalerrien kopurua murriztearen ondorioz, ez dugu jaso nahiko daturik eskualde mailako balorazioak egin ahal izateko. Horrez gain, aldagaien arabera emaitzak - sexua, taldeen osaera eta haurren presentziari dagozkiena- Hego Euskal Herriko hiriburuetan baizik ez ditugu eskuratu.

Neurketa egunak eta orduak

Orain arte, neurketa guztiak azaroan egin dira, baina 2006koa urrian egin da. Izan ere, hemendik aurrera datu-bilketa neguko ordu aldaketa baino lehen egitea hobetsi da, kalean jende gehiago behatu ahal izateko. Beraz, V. Kale Neurketa urriaren 18an eta 21ean egin da, hiru neurralditan: EAEn eta Nafarroa Garaian asteazkenean 18:00etatik 20:00etara, eta larunbatean 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan egun horietan egin ziren neurketak, baina ordutegia aurreratuta: 10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Neurtutako aldagaiak

Neurtutako aldagaietan ere, badira berrikuntzak aurreko neurketetatik hona⁵. Behatutako pertsonen erabilitako hizkuntzarekin batera, pertsona horien zenbait ezaugarri ere jaso da. Orotara, lau aldagai izan dira: adina, sexua, taldearen osaera eta haurren presentzia.

- **Adina**

Lau adin talde bereizi dira: haurrak (0-14 urte), gazteak (15-24 urte), helduak (25-64 urte), eta adinekoak (65 urtetik gorakoak). Datu bilketa egiten ari den neurtzaileak, hiztunaren -eta entzuleen- adina estimatuko du, beti ere, ezer galdetu gabe.

- **Sexua**

Sexuaren aldagaiari dagokionean, besterik gabe, neurtutakoa emakumezkoa ala gizonezkoa den jasoko da

- **Taldearen osaera**

Aldagai honekin elkarrizketan parte hartzen duten hiztunak adin talde berekoak diren ala ez aztertu nahi da. Beraz, bi multzo bereiziko dira: "adin talde berekoak" eta "adin talde ezberdinekoak".

- **Haurren presentzia**

Adin talde berekoen artean haurren arteko elkarrizketak jaso ditugu.

V. Kale Neurketa honetan guztira 185.316 lagun behatu dira , 153.969 gaztelaniaz, 27.172 euskaraz eta 4.175 beste hizkuntzatan.

62 udalerritan egin dira behaketak: Araban 4, Bizkaian 18, Gipuzkoan 16, Nafarroa Garaian 13, Lapurdin 7, Nafarroa Behean 2, eta Zuberoan ere 2.

Neurtutako aldagaietan ere, badira berrikuntzak aurreko neurketetatik hona. Behatutako pertsonen erabilitako hizkuntzarekin batera, pertsona horien zenbait ezaugarri ere jaso da. Orotara, lau aldagai izan dira: adina, sexua, taldearen osaera eta haurren presentzia.

Aldiz, adin talde ezberdinekoen artean hiru egoera zehaztu dira: haurren presentziarik gabeko elkarrizketak (fitxako “haurrik ez” kategoria), haurrak presente egon baina parte hartzen ez duten elkarrizketak (“haurrak ez dira mintzakide”), eta azkena, haurrak presente egon eta parte hartzen dutenak (“haurrak mintzakide”).

Esate baterako, guraso batzuk topatzen baditugu haur batekin, adin talde ezberdinekoen kategorian kokatuko ditugu. Baina ez da gauza bera ama eta aitaren arteko elkarrizketa (“haurrak ez dira mintzakide” kategoria), edota ama eta haurraren arteko elkarrizketa (“haurrak mintzakide” kategoriakoa).

Haurren presentziaren kategoriak diseinatzerakoan, lehenik eta behin, aurreko neurketetako ereduarekin⁶ lortutako emaitzak alderatu ahal izatea lehenetsi dugu.

Hizkuntza da, edonola ere, aztergai nagusia. Orain arte, hiztuna euskaraz edo gaztelaniaz/frantsesez ari zen aztertu izan da. V. Kale Neurketan “beste hizkuntzak” ere aztertu dira, izan ere, euskara, gaztelania edo frantsesa ez diren hizkuntzak geroz eta presentzia handiagoa dute gure kaleetan. Gainera, etorkizunean presentzia hori areagotu egingo dela pentsa daiteke. Hori dela eta, aurten diseinatutako fitxan atal hori sartzea erabaki da.

Azkenik, V. Kale Neurketako fitxan “bakarrizketak” atala mantendu egin da. Bakarrizketak, 2001ean neurtu genituen lehen aldiz, batez ere, eskuko telefonoak kalean geroz eta gehiago erabiltzen zirelako. Bakarrizketen multzoan sartu ditugu, eskuko telefonoz hitz egiten ari direnekin batera, etxe atarrietako interfonoz ari direnak, animaliekin hitz egiten dutenak, etab.

Ondoren, datu bilketan erabilitako fitxa ikus daiteke. Soziolinguistika Klusterrak lan handia egin du fitxa horren diseinua doitzean. Fitxak, batez ere, bi helburu bete behar zituen: datu bilketa erraztea eta azkartzea, eta aldagai guztiak fitxa bakar batean biltzea. Kale neurketako hiru saiotan edo neurralditan (asteazken goiza, larunbat goiza eta arratsaldea) fitxa bakarra erabiltzeak, aldagaien arabera jasotako lagina beste urtetan baino handiagoa izatea ekarri du.



HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

		EUSKARAZ				FRANTSESEZ / GAZTELERAZ			
		Haurrak (0-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (25-64 urte)	Adinekoak (65... urte)	Haurrak (0-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (25-64 urte)	Adinekoak (65... urte)
ADIN TALDE BEREKOAK		EMAKUMEA				EMAKUMEA			
		Orotara				Orotara			
		GIZONA				GIZONA			
		Orotara				Orotara			
ADIN TALDE EZBERDINEKOAK	Haurrik ez	EMAKUMEA				EMAKUMEA			
		Orotara				Orotara			
	GIZONA				GIZONA				
	Orotara				Orotara				
Haurrak ez dira mintzakide	EMAKUMEA				EMAKUMEA				
	Orotara				Orotara				
GIZONA				GIZONA					
	Orotara				Orotara				
Haurrak mintzakide	EMAKUMEA				EMAKUMEA				
	Orotara				Orotara				
GIZONA				GIZONA					
	Orotara				Orotara				
Orotara									



HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

		BESTE HIZKUNTZAK				BAKARRIZKETAK			
		Haurrak (0-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (25-64 urte)	Adinekoak (65... urte)	EUSKARAZ			
		Haurrak (0-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (25-64 urte)	Adinekoak (65... urte)	Haurrak (0-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (25-64 urte)	Adinekoak (65... urte)
ADIN TALDE BEREKOAK		EMAKUMEA				EMAKUMEA			
						Orotara			
		GIZONA				GIZONA			
						Orotara			
ADIN TALDE EZBERDINEKOAK	Haurrik ez	EMAKUMEA				EMAKUMEA			
						Orotara			
	Haurrak ez dira mintzakide	GIZONA				GIZONA			
						Orotara			
Haurrak mintzakide		EMAKUMEA				EMAKUMEA			
						Orotara			
Haurrak mintzakide		GIZONA				GIZONA			
						Orotara			
						Orotara			

OHARRAK: (ekitaldi berezi bat egon bada, elurtea...)

Oharra: adinkako eta taldekako emaitzen batura egin, kontuan hartu biek kopuru berdina eman behar dutela.

Herria: Ibilbidea: Eguna: Ordua:

1. Neurtzailearen izena (k): Tel.: Fitxaren zbkia:

2. Neurtzailearen izena (k): Tel.:

Udalerrien aukeraketarako erabili diren irizpideak

Aurreko neurketetan, Hego Euskal Herrian 5.000 biztanletik gorako herri guztiak neurtu ziren, eta 5.000 biztanletik beherako herri kopuru osoaren % 10. Lagin horren aukeraketa hiztun kopuruen eta euskaldun kopuruen tipologiari arabera egin zen.

Aldiz, V. Kale Neurketan 62 udalerriri neurtu dira, aurreko neurketetan baino gutxiago. Udalerriri horien aukeraketa honako irizpide hauen arabera egin da:

- 1993ko, 1997ko eta 2001eko neurketen datuak izatea.
- Hiru edizio horietan datu koherenteak izatea, gora-behera nabarmenik gabe.
- 1000 biztanle baino gehiagoko udalerririk izatea.
- Banaketari dagokionez, Hego Euskal Herriko herrialde bakoitzean lau zonalde soziolinguistikotako udalerririk neurtzea, eta, ahal izatera, eskualde guztietan neurtutako udalerriren bat izatea.

Hala, Hego Euskal Herrian 51 udalerriri aukeratu dira. Irizpide horiek betetzen saiatu gara, baina beti ez da posible izan. Ikus ditzagun salbuespenak:

- Gora-behera nabarmen samarra erakusten duten herri batzuk hautatu ditugu (Lizarrak, Lakuntza, Amurrioko); horiek neurtu ezean, tipologia horretako (ezagutza-tarte+herrialde) herri gutxi neurtuko zirelako, eta gainera, Lizarraren kasuan, eskualde handi bat gelditzen zelako neurtu gabe.
- Aramaio, Doneztebe eta Zizur Nagusiaren kasuan, Udalerriri horiek ez dira aurreko neurketa guztietan neurtu, baina beraien zonalde soziolinguistikoen datuak osatu ahal izateko hiru udalerriri horiek neurtzea hobetsi da.

Ipar Euskal Herrian 11 udalerriri aukeratu dira. Irizpideen aplikazioari dagokionez, salbuespena Atharratze izan da, udalerriri horretan 1997an ez dugu daturik eta 1000 biztanle baino gutxiago ditu. Baina, Atharratze neurtu ezean, Zuberoan udalerriri bakarreko (Maule) datuak izango genituzke.

Orotara, beraz, 62 udalerriri neurtu dira, eta horiekin lortu ditugu Euskal Herriko, herrialdekako eta hiriburuetakako emaitzak (Baiona salbu). Ondorio horietara iristeko hainbat haztapan eta kalkulu estatistiko egin dira.

Ondoren, adibide gisa, Gipuzkoako datuak lortu ahal izateko egin diren kalkulu garrantzitsuenak azalduko ditugu.

Hizkuntza da, edonola ere, aztergai nagusia. Orain arte, hiztuna euskaraz edo gaztelaniaz/frantsesez ari zen aztertu izan da. V. Kale Neurketan "beste hizkuntzak" ere aztertu dira, izan ere, euskara, gaztelania edo frantsesa ez diren hizkuntzak geroz eta presentzia handiagoa dute gure kaleetan.

Ondoren, datu bilketan erabilitako fitxa ikus daiteke. Soziolinguistika Klusterrak lan handia egin du fitxa horren diseinua doitzan. Fitxak, batez ere, bi helburu bete behar zituen: datu bilketa erraztea eta azkartzea, eta aldagai guztiak fitxa bakar batean biltzea.

Metodologiaren azalpena

Hego Euskal Herrian, herrialde bakoitzeko (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia) lau ezagutza-tipologia sortu dira: % 0-% 25 arteko ezagutza dutenak; % 25-50 bitartekoak; % 50-75 bitartekoak; eta % 75etik gorakoak. Beraz, guztira 16 tipologia dira (4 herrialde x 4 ezagutza-tipologia).

Gipuzkoan 16 udalerrri neurtu dira (2001ean 40 udalerrri izan ziren)⁷:

- % 25-50 bitarteko ezagutza-tipologian: Donostia, Irun eta Zumarraga.
- % 50-75 bitarteko ezagutza-tipologian: Arrasate, Eibar, Hernani, Hondarribia, Legazpi, Ordizia, Tolosa, Usurbil eta Zumaia.
- % 75etik gorako ezagutza-tipologian: Azkoitia, Azpeitia, Oiartzun eta Oñati.

Adibide modura, ikus ditzagun % 25-50 bitarteko ezagutza-tipologiako emaitzak lortzeko egindako kalkuluak.

1. taulan ageri diren hiru udalerrien datuak jaso dira, eta horietan oinarrituta Gipuzkoako tipologia horretako emaitzak estrapolatu egin behar izan dira⁸. Horretarako egin den analisi estatistikorako, aurreko edizioetako datuetara jo dugu. 93tik hona ezagutza-tipologia honetan neurtutako udalerrri guztien datuak hartu dira kontuan, eta datu horien eta 2006an neurtutako hiru udalerrien arteko aldea kalkulatu da. Alde edo desbideratze hori zuzenketa-indizetza hartu da, gure hipotesia izan baita alde hori ez dela aldatu (modu esanguratsuan estatistikoki) 93tik hona. Horrenbestez, zuzenketa-indize hori aplikatu zaio 2006ko emaitzen batez bestekoari, eta horrela, hiru udalerrri horietatik areago, Gipuzkoako tipologia horretako udalerrri guztien batez bestekoa kalkulatu da.

Udalerrria	Guztira	Euskaraz	Gazt/Frantsesez	Bestelakoetan
Donostia	17.089	3.106	13.645	338
Irun	6.418	493	5.793	132
Zumarraga	1.452	355	1.093	4
GUZTIRA	24.959	3.954	20.531	474

1. taula: 2006ko neurketan, Gipuzkoako %25-50 ezagutza-tipologiako udalerrrien datuak.

Tipologia	Guztiak	Euskaraz	Gazt/frants	Bestelako.	Erabilera		
					Euskaraz	Gazt/frants	Bestelako
%25,01-50,0 euskaldun	24.959	3.954	20.531	474	% 15,84	% 82,26	% 1,90

2. taula: erabileraren portzentajeak 1. taulako emaitza orokorreari erantsita.

3. taulan “erabilera guztiekin” zutabeak adierazten du zein izan den Gipuzkoako tipologia horretako udalerrri **guztien** erabileraren batez bestekoa aurreko edizioetan. “Erabilera 06koekin” zutabeak, aldiz, adierazten du zein izan den erabileraren batez bestekoa edizio berberetan, baina soilik 2006an neurtu diren udalerrriak hartuta. Bi zutabe horietako portzentajeak alderatuta, ikusten da udalerrri guztien batez bestekoa 0,18 baxuagoa dela hiru udalerriena baino. Horra hor 2006an jasotako datuei aplikatu zaien zuzenketa-indizea, Gipuzkoako tipologia horretako udalerrri guztien batez bestekoa kalkulatzeko.

Ezagutza-tipologia	Erabilera-guztiekin	Erabilera-06koekin	Zuzenketa-indizea
% 25,01-50,0 euskaldun	% 16,65	% 16,84	% -0,18

3. taula: Gipuzkoako ezagutza-tipologia horri dagokion zuzenketa-indizea.

0,18ko zuzenketa-indizea 2006ko neurketan jasotako erabilerari (ikus 2. taula) aplikatu diogu. Horrela lortu da euskararen erabilerari dagokion % 15,66ko emaitza orokorra tipologia horretarako.

Ezagutza-tipologia	Euskararen erabilera	Zuzenketa-indizea	Euskararen erabilera,2006
% 25,01-50,0 euskaldun	% 15,84	% -0,18	% 15,66

4. taula: Gipuzkoako ezagutza-tipologia horretako erabileraren emaitza orokorra.

Euskararen erabilera neurtuta, erdaren erabilera kalkulatzeko izan da hurrengo urratsa. Erdaren artean, gaztelaniak eta frantsesak sail bakarra osatu dute, eta bestelako hizkuntzak aparte sailkatu ditugu.

5. taulak erakusten du zein portzentajetan egin den gaztelaniaz/frantsesez erdal hizkuntzak erabili direnean. Erdaraz jaso diren elkarrizketetatik % 97,74 gaztelaniaz edo frantsesez izan dira.

Ezagutza-tipologia	Gazt/Frantsesa	Bestelakoak	Bien batura	Gazt/Frants pisua	Bestelakoen pisua	Bien batura
%25,01-50,0 euskaldun	20.531	474	21.005	% 97,74	% 2,26	% 100

5. taula: erdal hizkuntzen erabilera portzentajeak.

6. taulak erakusten dizkigu hizkuntzen erabilera orokorraren batez bestekoak. Elkarrizketa guztietatik % 15,66 euskaraz izan dira, % 82,44 gaztelaniaz edo frantsesez, eta % 1,90 beste erdararen batean.

Ezagutza-tipologia	Erabilera		
	Euskara	Gazt/Frantsesa	Bestelakoak
%25,01-50,0 Euskaldun	% 15,66	% 82,44	% 1,90

6. taula: hizkuntzen erabilera portzentajeak.

Gipuzkoako % 25-50 ezagutza-tipologiako udalerririk baliatu ditugu portzentaje orokorrak nola kalkulatu diren azaltzeko. Era berean kalkulatu dira ezagutza-tipologia guztien eta Hegoaldeko lau herrialdeetako udalerrien emaitzak.

Udalerrietatik haratagoko emaitzak

Ikusi dugu nola multzokatu diren udalerririk lau ezagutza-tipologiatan, eta nola kalkulatu diren udalerririk mailako portzentaje orokorrak neurtutako udalerrietatik. Metodo hori berria izan da V. Neurketa honetan.

Udalerrietatik haratagoko portzentajeak (herrialdeetakoak edo Euskal Herri osokoak, esate baterako) kalkulatzeko, udalerririk bakoitzeko portzentajeak udalerririk horretako hiztun kopuruarekin biderkatu dira. Modu horretara estimatzen da udalerririk batean zenbat egiten den euskaraz, zenbat gaztelaniaz edo frantsesez, eta zenbat beste erdararen batean. Udalerrietako kopuru horiek batuta, udalerrietatik haratagoko portzentajeak kalkulatu dira.■

OHARRAK

1. BAT Soziolinguistika aldizkaria, 3/4 alea (1991).
2. Bi urteko edo gehiagoko biztanleak hartzen ditugu hiztuntzat.
3. Salbuespen batzuk badira, esate baterako, Pasaiari tamainaren arabera (17.003 hiztun) bi ibilbide dagozkion arren, hiru ibilbide neurtuko dira beste hainbeste gune daudelako.
4. Aurreko neurketan, 2001ean, 241.812 lagun neurtu ziren. Kontuan izan behar da neurketa hartan 173 udalerririk neurtu zirela.
5. Orain arte jasotako aldagaiei buruzko xehetasunak BAT aldizkariako 43. aleak aurki ditzakezue "erabileraren kale neurketa. Ibilbidea eta metodologia" artikuluan.
6. Ikus BAT aldizkariaren 43. aleko 33. orria.
7. Gipuzkoan ez dago % 0-25 bitarteko ezagutza-tipologiako udalerririk.
8. Beste horrenbeste egin da gainontzeko tipologiek eta Hegoaldeko gainontzeko herrialdeekin.